

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Usainez mozkor

MARRUBI USAINA duen menda, menda usaina duen geranioa, limoi usaina duen luisa-belarra... Hamaika usaintzeko gaude. Lurrinen soroak oparoak dira. Soroak, soloak edo dena delakoak. Denak latinezko *solum* ez al dira, bada? Lurra, horixe da soroa. Euskaldunon neolitotik gelditu zaigun ikuskera: soroa da lurra, landu daitekeen lurra, geuk emankorrako egiten dugun lurra. Honelaxe zioen Gernikako Gaztetxea tartean Busturialdea Auzolanean taldeak antolatutako Soloan Berriketan deituriko topaketarako deialdiak: “Udaberria martxan! Ari dira soloak berpizten. Lurraren indarra jaso, elikatu, lagun artean konpartitu, Lurrari jabetasuna eman. Udaberriaz berritu. Usainekin mozkortu. Koloreekin liluratu. Eguzkitan busti, haize finaz garbitu, gogortu, sendotu, elkarren ondoan gozatu, berotu, izerditu, urtu.” Soroa ez den lurra ere usainak sortzen ditu. Baina Busturiako soloari ere usaina dario, udaberri bezala urte osoan, ez dago mozkortu beharrik baina, ala bai? Ni baiezkoan...

Mozkin dira gaur egun usain gehienak. Badira naturalak, landu gabe bilduak, baina gehienak soroetan edo fabriketan sortutakoak dira. Lurrin asko eta asko artifizialak dira eta imitazio onak badira ere, ez dira. Marrubi usaineko jogurtak jatearen jatez marru-

biaren usaina ez dute ezagutuko gure hurrek etorkizunean.

Soroetan sortzen diren usainak ere badira. Tartean, sona ikaragarria hartua dutenak. Okzitaniako Tolosan galdetu behar! Hango bioletaren usaina hobetuko duenik ez omen da... Historia luzea du bioleta (*Viola* sp.) langintzak alde horretan eta etekin ederra atera diote. Usaina, perfumea da landareño horren mozkor ezagunena baina azukretan kristalizatutako loreak, ziropak, marmeladak, likoreak, eztiak... zer ez dute egiten bioletaz? Plater ugaritara ere eramaten dute. “Hiri arrosa” deitzen zaio, bere adreiluzko etxeak direla eta; nik “hiri morea” deituko nioke, otsailero egiten duten bioletaren jaialdira azaldu eta zuzen ote nabilen erabaki...

Patxulia aipatu gabe ez diot oporraldiari ekin nahi. Gero eta gehiagotan aditzen dut patxuli usaina, boladan dago. *Pogostemon cablin* landarearen hostoen esentzia da. Hippyen garaiko lurrina zen, zikin-estalki ona, ez dutzatzearena, drogena eta abar... Lagun baten amonak esaten zuen bezala “badator abuztu nazkagarria” eta egun, egunean bitan dutzatzea derrigorrezkoa dela badirudi ere, izerdi usainak ezkutatzeko: patxulia. Aldamenekoak zer ote dio, baina? Horrek bai mozkortu. Gustatu egin behar!



JAKOBA ERREKONDO



Zuri-zuri

Giro epel eta hezeak perretxikoak eta onddoak suspertzen ditu. Landareak jipoitzen dituzten gaitz gehienak hauek sortzen dituzte. Geurean udaberriatik udazkena artekoa nahikoa epel denez heze diren egunetan adi gaitzei!

Hona zurina, edo oidioa. Platanoaren (*Platanus x hispanica*) hostoa lizun antzeko geruza zuriz estali eta kiribildu arteraino estutzen duen hori da onddoa, *Microspheera alni*. Haritzak, ametzak... zuhaitz eta landare ugari erasotzen du zurinak. Hostoa ezkutatu, itzaldu, ahuldu, kizkurtu, ihartu eta erortzeraino eramaten du. Ez da gaitz larria, baina pasara ederra ematen dio landareari.

Landare askori erasotzen die zurinak. Zuria zuriaz zuritzen dugu, ordea. Zuria da zurinari aurrea hartzeko dugun adiskide onenetakoa: esnea. Esnea landarearentzat eguzkitarako krema bezala da. Azala zailtzen duenez zurinak zailagoa izango du sarrera.